

"HAURRAK BETI JOLASEAN" 2008-2009 Ikasturtea

INFORMAZIO ORRIA

Helburua

Jarduera honek euskara ikasteko eta hobetzeko aukera eskaintzen du jolasaren bitartez eta, era berean, haurrak euskara erabiltzeko ohitura hartzen du ikasgelaz kanpoko jardueretan.

Lekua

Eskola orduz kanpoko jarduera hau ikastetxeetan bideratzen da.

Adina

Haur Hezkuntzako 2.mailatik (4 urteko gela) Lehen Hezkuntzako 4.mailara arteko haurrek har dezakete parte.

Taldeak

Taldeak gehienez 12 hurrez eta gutxienez 10ez osatu ahal izango dira, salbuespenak salbuespen.

Izen-ematea

Haurrak ikastetxean eman behar du izena. Ikastetxeak taldeak osatu ondoren, hurren izen-ematea eta talde osaketa Euskararen Udal Patronatuari jakinaraziko dio programa informatiko baten bitartez (eman beharreko urratsak honekin batera doan eskutitzean azalduta daude).

Bajak: haur batek bertan behera uzten badu jarduera, Euskararen Udal Patronatuari emango zaio horren berri, baina ordaindutako matrikula ez da itzuliko.

Altak: matrikulazio epea irailean da. Plazak libre egonez gero, urtarrilean aukera izango da izena emateko. Urririk abendura bitartean, plazak libre egonez gero, eta salbuespen gisa ikastetxeak hala eskatuta, onartu ahal izango dira ikasleak, baina matrikula osoa ordaindu beharko dute. Euskararen Udal Patronatura deitu beharko da kasu guztietan.

Laguntzak

. Familia ugarietako kideei %25eko beherapena egingo zaie Eusko Jaurlaritzak luzatzen duen familia ugariaren txartela aurkezten bada.

. Gizarte laguntza jasotzen duten familietako haurrak kuota ordaintzetik salbuetsita daude. Egoera hau Donostiako Udaleko Gizarte Ongizate sailaren bitartez frogatuko du Euskararen Udal Patronatuak.

Moduluak

. A ereduko hurrek I. moduluan eman dezakete izena.

. B eta D ereduak hurrek edozein modulu aukera dezakete.

MODULUA	EGUNAK	NOIZ	ORDUAK	PREZIOA
I Modulua	Astean zehar	Eguerdiz edo arratsalde	4 ordu	171 €
II Modulua	Astean zehar	Eguerdiz edo arratsalde	3 ordu	171 €

Jardueraren prezioa bera izango da astean hiru orduz nahiz lau orduz aritu.

Ikastetxearen ardura

Taldeak osatzea, talde bakoitzaren ordutegia zehaztea, behar diren gelak egokitzea eta jarduera koordinatzeko solaskidea izendatzea.

- Informazio gehiago behar izanez gero:
Euskararen Udal Patronatuaren bulegoan edo
KIRIKETANera deitu: 943 453334
"HAURRAK BETI JOLASEAN"